

# ERREGE MAGOAK

Marc Egea

Eusk: Ele txera

**ESTER** aurrez aurre eserita dago zortzi urteko semearekin. Haurrak errege magoei eskatuko dizkien gauzen zerrenda dauka eskuan, baina oraingoan amaitu egin da: **ESTER**rek eta **SERGIO**k, senarrak, erabaki dute haurrari errege magoei buruzko egia esatea. Errazagoa izango zen **SERGIO** ez bazen egongelan futbola ikusten geratu.

**ESTER:** Maitea, bizitzako une batzuetan gauza eroso batzuk atzean utzi eta errealtateari aurre egitea komeni duk. Eta inoiz ez duk erraza. Zortzi urte dituk, bihotza, eta zerbait jakiteko garaia duk: Errege Magoak... Errege Magoak dituk... Errege Magoak ez... *(Papera begiratzen du)* Zenbat gauza, e. Aitak nirekin egon beharko likek hemen hau kontatzen eta ez futbola ikusten egongelan, errazagoa izango lukek... *(Berrito egiten du irribarre)* Ez al diek entzun haurrei zerbait Errege Magoei buruz? Ez diate ezer arrarorik kontatu? Zortzi urte dituk... *(Senarra ez dator)* Oso partidu garrantzitsua izan behar dik, beti dituk garrantzitsuak, berak berea eta nik beti dena kargatzen, eta inoiz ez duk ezer gertatzen banauk erge... *(Papera seinalatuz)* Zer duk hau? Ur-pistola bat? Ah... *(Atzealdean futbol-partida besterik ez da entzuten)* Futbola, futbola, futbola. Aitak penalti-gol bat sartu zian duela urte asko, bihotza, zortzi urte; ez nauk damutzen gola eman izanaz, nola damutuko nauk horretaz, baina agian baloiarekin beste alde batera alde egin behar nian... *(Haurrak papera seinalatzen dio)* Balo bat? Balo bat ere bai? *(Irakurtzen du)* "Baloia...denboraldi honetako baloia", ah... Maitea, bizitzako une batzuetan gauza eroso batzuk atzean utzi eta errealtateari aurre egitea komeni duk. Baina ez duk erraza. Ez duk batere erraza. Lotara joateko ordua duk, eta ez ahaztu gameluei ur pixka bat uzten.

Ele txera  
Hondoluzak zabaldiaz

